

LAGUNTZEN RIS3 DEIALDIA, "BIOZIENTZIAK- OSASUNA" ARLOKO IKERKETA ETA GARAPEN PROIEKTUETARAKO (2016)

Deialdiaren ezaugarriak:

Laguntzak lehiaketa bidez emango dira, 12. artikuluan ezarritako balioespen irizpideei jarraituz, eta laguntzak emango dira harik eta deialdian esleitutako kredituak agortu arte. Deialdi hau finantzatzeko 1.410.000 euro daude.

Lehentasunezko arloak:

- Medikuntza pertsonalizatua
- Gaixotasun arraroak
- Osasun digitala eta gailu medikoak
- Datuen analisi aurreratua

Modalitateak:

- Osasun arloko funtsezko ikerketa proiektuak, hainbat erakunderen artean lankidetzan eginak, ezaguera berriak hartzea helburu nagusitzat dutenak.
- Osasun arloko garapen teknologikorako proiektuak, dagoeneko egiaztatuta dauden aurreko esperientzietan oinarrituak, eta balio katean aurrera egitera eta Euskadiko osasun sistemaren ikerketa eta berrikuntza gaitasunaren eragina areagotzera bideratuak.

GARRANTZITSUA: Erakunde onuradunak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea (ZTBES) osatzen duten eragile zientifiko-teknologikoak soilik izan daitezke laguntzen onuradun, baldin eta, laguntzen eskabidea aurkezteko egunean, horretarako akreditatuta badaude.

Eragileen zerrenda esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu>

Proiektuen iraupena:

Urte bat eta hiru urte arteko denbora tartean gauzatu ahal izango dira ikerketa proiektuak. Hala ere, deialdi honetako laguntzak urtekoak izango dira eta 2016an egindako jardueri baino ez zaizkie emango. Ezin izango da proiektuaren luzapenik eskatu.

Proiektuek bete beharreko baldintzak:

Gutxienez, Euskadiko osasun sistemako eragile batek parte hartu behar du nahitaez.

Ikertzaile nagusiek bete beharreko baldintzak:

Funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea onuradun den ZTBESko eragilearekin.

Bateraezintasunak:

- Osasun arloko funtsezko ikerketa proiektuatarako:
 - Koordinatzaileak proiektu bakar batean jardun ahal izango du koordinatzaile gisa.
 - Ikertzaile nagusiek gehienez ere bi proiektutan parte hartu ahal izango dute ikertzaile nagusi gisa.

b. Osasun arloko garapen teknologikorako proiektuetarako: Ez da mugarik ezartzen. Ikerketa taldeko gainontzeko kideek ez dute mugarik izango proiektu desberdinetan parte hartzeko.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak

	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK	DIRUZ LAGUNDU EZIN DIREN GASTUAK
LANGILEAK	Langileak (ikertzaileak, teknikariak eta ikerketan laguntzen duten gainerako langileak) kontratatzeak eragindako gastuak, betiere, langileok proiektuan aritzen diren neurrian.	Funtzionarioen, estatutupeko langileen edo lan kontratudun langileen kostuak, EAEko sektore publikokoak diren ZTBESko eragileei lotutakoak.
	GARRANTZITSUA: Langile hauen orduko kostua justifikatu ahalko da 2016ko urtarriletik azarora.	GARRANTZITSUA: Langile hauek ezin izango dute orduko kostua justifikatu.
ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proiektua egiteko erabili den material inbentariagarria ✓ Material suntsigarria eta gastu osagarriak ✓ Material bibliografikoa ✓ Proiektuen emaitzak hedatu eta transferitzeak dakartzan gastuak ✓ Kanpoko zerbitzuen kontratazioa, eskaeraren memorian aipatu beharko dena 	<ul style="list-style-type: none"> × Altzariak eta instalazioak × Kudeaketarako ekipo informatikoak × Bulegoko material orokorra (fotokopiak, tonerra edo telefono gastuak)
BIDAIAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kanpo lanak ✓ Koordinazio bilerak ✓ Kongresu eta hitzaldietara joatea 	X
ZEHARKAKO KOSTUAK	Proiektua gauzatzeko zuzeneko kostuen % 21	X

Eskaerak aurkezteko epea eta era:

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko irailaren 14ko 13:00etan amaituko da.

GARRANTZITSUA: Eskaerak elektronikoki aurkeztu ahal izateko, ikertzaileek aldeztu aurretik "Posta elektronikoen alta agiria" (Ikerketaren arloko Errektoreordetzako webgunean dago eskura) bidali behar dute investigacion-san@euskadi.eus helbidera. Eragile koordinatzaileak eskaera egiteko erabiliko dituen posta elektronikokoak soilik adierazi behar dira.

Proiektu bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztuko da. Eskabidea egiteko, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a. Eskabide orria (II-A eranskina)

- b. Memoria, parte hartzen duen eragile bakoitzaren informazioarekin batera (III-B eta III-C eranskinak)
- c. Curriculum, eredu normalizatua. Carlos III. Osasun Institutuko (ISCIII) eredu eta Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioarena (FECYT) hartuko dira ontzat.
- d. Erantzukizunpeko adierazpena (*Dokumentu hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emango du eskaera bakoitzerako)
- e. Jarduera bakoitzaren arabera behar diren baimen eta/edo txostenak.

UPV/EHU n egin beharreko tramitea:

Dokumentuak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkezteko azken egunak:

2016ko irailaren 2a (egun hori barne)	I. eranskina bidali behar da, proposatutako langileen zerrenda jasotzen duena, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, gaian "RIS3 deialdia" jarrita.
2016ko irailaren 7a (egun hori barne)	II-B eranskina (Memoria ekonomiko orokorra) eta III-C eranskina (Memoria ekonomikoa) bidali behar dira convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera. Dokumentu hauek errektoreordeak sinatu behar ditu. Horregatik, denbora nahikoarekin bidali behar dira, errektoreordeak sinatuko dituela eta, hala badagokio, proiektuko koordinatzaileari itzuliko zaizkiola bermatu ahal izateko. <u>Dokumentu hauek bidaltzea nahitaezko baldintza da Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako IV. eranskina (Erantzukizunpeko adierazpena) eskuratzeko.</u>
2016ko irailaren 13ko 12:00ak	Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdien Atalean (Errektoregoko eraikina, Leioa) dokumentazio guztia jasotzeko azken eguna da, eskaeran UPV/EHU koordinatzaile moduan agertzen den kasuetarako. Garaiz helden ez diren eskaerak ikertzaile nagusiak berak aurkeztu ahal izango ditu. Kasu horretan, eskaera aurkeztu ondoren, dokumentu guztien kopiak bidali beharko dira convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, artxibatu daitezten.
2016ko irailaren 14ko 13:00ak	ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

UPV/EHUren datuak:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena Auzoa, z. g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** 48940 Leioa (Bizkaia)
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

Harremanetarako:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	OSASUN SAILA (EJ)
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.eus	94 5 01 91 93 investigacion-san@euskadi.eus

Informazio gehiago:

http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru_laguntza/2016/ris3_euskadi_2016/s68-contay/eu